




ARLAS (2.044 m)

HASIERA:
ERNAZ LEPOA

- OHARRAK:**
- Goi mendiko ibilbidea da.
 - Goiko aldean laino itxia ohikoa da; bat-batean sortzen da. Beharrezkoa da urte osoan jantzi beroak eta GPS-a eramatea.
 - Neguan gune izoztuak egon daitezke, baita elur-jausi eta eroriko bertikalak izateko arriskua ere. Urtaro horretan egiten bada, beharrezkoa da segurtasun eta autobabes material egokia eramatea.



Ernaz lepotik abiatutik, Arlas mendia (2.044 m) ibilbide erraza eta laburra da; Auñamendira igoeraren osagarri bezala ere egin daiteke.

Ibilbide gehiena Auñamendira igotzen den bidetik egiten da. Hasi eta berehala altuera irabaziko dugu Arlasen hego-mendebaldeko magalean kokatzeko. Hau zeharkatu ondoren azken aldapari ekinen diogu Pescamou Lepotik; desnibela oso handia da, baina minutu gutxitan tontorrera iritsiko gara. Bertatik La Pierre Saint Martin eski-guneko eta Soum Couy mendiko ikuspegi ezin hobek izanen ditugu.